

Egungo euskararen bilketa-lan sistematikoa (EEBS)

Andoni Sagarna

Hiztegitza euskara baturanzko ibilbide luzean

Nire adineko euskaltzaleok berdin-berdin edukiko genukeen gure oroitzapenik ezabagaitzenen artean 1968. urtea Pariseko maiatza edo Pragako udaberria gertatu ez balira, eta ez hemen ere politika-giroak astindu galanta eman zigulako bakarrik, euskararen historian gertakizun gutxi bezalako eragina izan zuen Euskaltzaindiaren Arantzazuko Biltzarra urte hartan egin zelako baizik.

Idazlan honi gehiegizko konparazio batez ekin diodala uste baduzu, seguraski ni baino ondotoz gazteagoa izango zara. Izan ere, duela hogeitabost urte euskalgintzan zihardutenek zenbateraino zebiltzan esku hutsik adieraztea ez da gauza erraza. Idazten hasten ginen gaztetxook ez genuen etxean ikasitako euskaraz baliatzea baino askoz gehiago egiterik. Grafia aldetik ere bakoitzak ahal zuena egiten zuen. Hizkuntza lantzeko grina pixka bat zue-

nak, berriz, liburutegiren batean Altuberen *Erderismos* edo Umandiren *Gramática Vasca* estudiatzeko edo klasikoren bat irakurtzeko aukera baldin bazuen “jakintsu”tzat har zezaten ez zuen asko faltako. Bestalde, guztiz lotuta aurkitzen ginen erdaraz ikasiak genituen kontzeptuak euskaraz —ahalik eta euskararik garbienean noski— nola adierazi asmatu ezinik.

Giro hartan ongietorri handia egin zion Plazido Mujika-ren *Diccionario castellano-vasco-ri* euskaraz gai berriak tratatzeko asmoa zuenak; lagungarri gertatzen bait zitzaion esanezin horiek gainditzeko. Batek baino gehiagok biziki maite dugu oraindik ere Mujikaren “almazena”. Orotarik duelako, gari eta lasto nahasian, deitu izan diogu horrela, baina galbahea trebeki astintzen jakinez gero, bertatik probetxurik franko atera daitekeela uste dut.

Obra honi buruz eritzirik eskatuko balidate, bi erantzun-mota desberdin bereizi beharko nituzke. Lexikografiaren ikuspegitik tamalgarri deritzot, esate baterako, hitzak nondik jasoak eta zein testuingurutan erabiliak izan diren jakin ezinari, baina hizkuntza eraberritzeko iradokizun ugari eskaintzen dituen tresna den neurrian, nahiz eta proposamen asko nire gustokoak ez izan, asko estimatzen dut.

Bi erftzi-mota hauek desberdindu beharra berdin-berdin uste dut sentituko nukeela beste euskal hiztegi batzuek juzgatu behar banitu ere. Larramendiren *Diccionario trilingüe* bera, hainbeste mespretxu bereganarazi dioten etimologia bitxiak alde batera utzita, euskal lexikoaren plangintzarako lehen proposamen garrantzitsua dela esan daiteke, bai hitzaurre mardulean ematen dituen erizpide teorikoengatik (berak “voces facultativas” deitzen dituen termino teknikoek edo hitz-eraketako prozedurez, esate baterako) eta bai erdal hitz askoren ondoan ematen dituen euskal baliokide konkretuengatik.

Hiztegia erabilerak finkaturiko hitzen multzoak osatu behar duela erabakitzen badugu, eta horixe dela uste dut hizkuntz hiztegi bat egoera normaletan, Larramendirena ezin dugu onartu, ez dakigulako askotan zer den bildua eta zer asmatua, eta beste hainbeste esan beharko genuke geroztikako euskal hiztegi gehienez ere. Alabaina, euskara ez dagoenez egoera normalean, hainbat erabileremutako hitzen faltan baizik, ez da harritzekoa euskal hiztegiak berezi samarrak izatea. Deskribatzaile hutsak ez dira, erabat arauemaileak ere ez; proposamen-hiztegiak direla

esan ohi dut nik, eta nahikunde-hiztegiak ere askotan izaten direla uste dut.

Hiztegi-gile bakoitza, gauzak nola diren baino gehiago bere eritziz nola izan beharko luketen onargarritasun-neurgailu bezala harturik, gogoko duenari lehenasuna ematen eta gaitzesgarritzat duenari hesiak eta langak bidean jartzten ahalegintzen da. Arestiren *Hiztegi Tipia*-n “aberri” eta “abertzale” ageri ez diren bezala, Kintanak berean “aberri”, “abesti”, “akeita” sartu ditu baina hitzon jatorriak eragiten dion higuina nabarmenduz. “Estudio” hitza, berriz, Axularrek, Leizarragak, Mendiburuk, Larreguyk, ... klasikoen artean eta oraingo autore askok erabiltzen dutena (ik. Sarasolaren *Euskara idatziaren maiztasun-hiztegia*), Larramendik berak ere bere hiztegian jarri zuena, ez dute jasotzen ez Azkuek, ez *Diccionario de autoridades* delakoak, ez Plazido Mujikak, ez Sarasolaren *Hauta-lanerako euskal hiztegiak*.

Euskararen erabilera alor berrietan bultzatzeko eginiko hiztegiak, UZEIko hiztegiak esate baterako, proposamen-hiztegiak dira, zer esanik ez, haiek lantzen ibili garenok beti aitortu izan dugun bezala.

Hasierako gaiari helduz, duela hogeitabost urte euskarak, batasunik ezaren eraginez, landua izateko zituen eragozpenez niocnari, alegia, esan dezadan Euskaltzaindiak ortografiaz, deklinabidez, aditzaz, maileguzko hitzen idazkeraz, etab. emandako arauen bidez, egoera asko aldatu dela. Esan behar dudana bezala, badela oraindik zer eginik, noski, eta baita azken urteotako abiadura lastertzeko premiarik ere araugintza-kontu hauetan.

Bitartean egin diren hiztegiak beharrezkoak izan dira, euskara eskolan, komunikabideetan eta beste esparru batzuetan sartzea ahalbidetu dutelarik. Pozik egon gaitzeko Kintanaren hiztegiak izan duen arrakastarekin, adibidez, zeren eta, ekimen pribatuko obra izan arren, euskal kulturaren lanean dihardugunon gehiengo batek eman litekeen onespenera eman diogu, erabili egin bait dugu, eta horrela oinarritzko behin-behineko arau *de facto* bera bihurtu da. Agian beharrian larriak bultzatu gaitu hiztegi-arazoetan izan ohi ditugun liskarrak pixka bat alde batera uztera, nahiz eta praktikan dugun batasuna baino eritzi-desberdintasun teorikoak gehiago nabarmentzea gogoko duenik ere baden.

Nolanahi ere, euskararen batasuna eraikitzeko eginkizunen artean hiztegi-gintzak izan behar duen lekua garrantzitsuegia da

adabakia adabakiaren gainean jartzen ibiltzeko. Hiztegi-gileak haserretzeko batere beldurrik gabe diot hau, beraiek bait dakite inork baino hobeki oinarrizko obra batzuk eskueran ez edukitzeagatik, hala nola hiztegi historikoa, egungo euskararen hiztegia, euskara hutsezko hiztegi entziklopedikoa, etab. zenbat denbora galdu behar izaten duten dozena bat lekutan "bilatzen eta ez aurkitzen".

Euskaltzaindiaren Hiztegi-gintza-Batzordearen epe luzerako plana

1968an Arantzazuko Biltzarraren ondorioz argitara eman zuen *Batasunaren Hiztegia* eta 1975ean kaleraturiko *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia* ditu Euskaltzaindiak batasunerako eman dituen erabaki-mailako oinarrizko hiztegiak. Bistan da ez dagoela proportziorik euskararen urte hauetako garapenaren eta hiztegi-alorreko araugintzak denbora berean, alderdi kuantitatibotik behintzat, izan duen pisuaren artean.

Ez dut uste hiztegi-gintzaren atzerapen horren arrazoia utzikerian dagoenik, nire ustez gainditzen ari diren egiturazko ahulezia batzuetan eta gai horretan nahitanahiez lankide izan behar zutenen arteko harremanak bideratzeko foro egokien faltan baizik.

Egitura diodanean giza nahiz diru-baliabideak, antolakuntza, lantaldeak, hauen jectio ekonomikoa eta kontrol akademikoa, euskarri teknikoa, aipatu nahi ditut. Harremanei dagokienez, berriz, oso onuragarri deritzet Euskaltzaindiaren Batzorde eta Azpibatzerdeak eztabaidarako eta lankidetzarako azken urte hauetan eskaintzen ari diren topaguneari eta dinamika berriari.

Gainera, egin dena egiteko ere, benetako oinarririk gabe, h.d. iragan urrunean nahiz hurbilean euskaraz erabili izan den hiztegiaren behar bezalako ezagutzarik gabe, lan egin behar izan da. Azkueren hiztegia izan da bere muga guztiekin erreferentzia nagusia.

Muga horien jakitun, Euskaltzaindiak Koldo Mitxeleneri Azkueren hiztegia osatzeko mandatua eman zion 50. urteen hamarkadan. Mitxelena ez zen edozer gauzarekin konformatzeko gizona eta orrazketa arin bat baino ondotoz sakonagoa zen bil-

keta-lan bati ekin zion. Buruan zeukana ez zen Azkue hobetua, euskaraz euskalki eta garai guztietan erabili izan den lexikoa bilduko zuen hiztegia baizik. Jokabide hauxe zen seguraski euskararen beharrei zegokiena, baina honelako asmo bat aurrera ateratzeko, arestian aipatu ditudan egiturazko ahuleziak, egoera politikoa, etab. gaindiezinezko eragozpenak gertatu ziren denbora luzean.

Franco hil ondoren Espainiako egoera politikoa aldatu eta euskal erakunde autonomikoak jaio arren, urteak joan eta urteak etorri asmo hura aurrera ateratzeko behar ziren erabakiak ez ziren hartzen. Egoera hura egonezin nabaria sortzen hasi zen eta horixe dateke sakon-sakonean 1981ean Mitxelena izan zuen erreakzio zakarraren eragiletako bat. Nire interpretazio bat besterik ez da hau noski.

Urte horretan bertan, abenduaren 29an, Hondarribian bildurik, Euskaltzaindiak adierazpen bat egin zuen, zeinetan lehenbiziko puntua hiztegitzazkoa bait zen. Bertan esaten zen hizkuntzarekiko plangintza orokor batean sartua aurkitzen dela hiztegitzazkoa, eta Euskaltzaindiak erantzun egokiak eman nahi dizkiola honi. Azalpen honen ostean maila eta lehenitasunak bereizten zituen hiztegitzazkoa. Hiztegi Orokorra, Mitxelena alegia, ahalik eta lasterren burutzeko asmoa zuela esaten zuen, "hiztegi hiritartua" martxan jartzeko batzorde bat sortzea beharrezkoa ikusi zela, eta azkenik zioen, hiztegi espezializatuak egitea eta banan banako azterketa egitea ez dagokiola Euskaltzaindiari.


Hondarribiko adierazpena ez zen hitz hutsetan geratu eta 1982ko martxoaren 26an Euskaltzaindiak zenbait erabaki hartu zituen, bai Hiztegi Orokorra lantokia, tresnak eta lantalde bat izateko bidea jarriz eta bai Hiztegi hiritartuaz arduratuko zen batzordea izendatuz ere. Erabaki hauek aurreko urtetako geldialdia gainditzeko borondatea erakusten dute, baina oraindik ere neurri handiagoen beharra izango da ondoko urtetan etorriko diren aldaketa garrantzitsuak bideratzeko.

Hurrengo urrats inportantea 1983ko apirilean emango da Euskaltzaindiak Iker Sailaren barnean Hiztegitzazkoa Batzordea izendatzen duenean, eta 1984. urteak pisu bereziko bi gertakari ekarriko ditu: batetik Hiztegi Orokorra (orain *Orotariko Euskal Hiztegia* deitzen duguna) egiteko laguntza ematea erabakitzen dute Jaurlaritzak eta Diputazioek, eta bestetik garai hartan Hiz-

tegitintza Batzordeko Idazkari zen Mikel Zalbidetik prestatutako epe luzerako plana onartzen du Euskaltzaindiak. Lehenengo gertakaria garrantzi handikoa izen zen, maila horretako proiektu batek behar zuen erabaki politikoa, berandu bederen, etorri zelako eta bigarrena berriz urte batzuetan euskal hiztegitintzan Euskaltzaindiak egin edo gidatu beharreko lanak mailakatu eta denboran programatzen zituen erabaki akademikoa hezurmamitzen zuelako.

Euskera aldizkarian (XXXI zenbakia (2. aldia), 130 or.) argitaratu zen grafikoa dakargu hona epe luzerako lan-programaren adierazgarri:

Epe luzerako lan-programaren azalpen-taula



Azalpen-taula honen ideia nagusiak bakarrik emango ditut hemen:

- EHN (Euskal Hiztegi Nagusia) lehen Hiztegi Orokorra esaten zitzaiona eta gaur egun Orotariko Euskal Hiztegia deritzoguna da. Lehentxoago esan bezala, garai eta euskalki guztietan erabili den lexikoaren bilketa da bere helburua. Jadanik argitaratua den bigarren liburukian *Irakurle euskaldunari* eskaintzen zaion hitzaurrean esaten den bezala, "Etxeparerengandik hasita 1970-raino, hau da, euskara batuaren aroa hasi zen arte", hedatzen da hiztegi honen azterketa-eremua.
- LEF siglek Lexikologi Erizpideen Finkapena esan nahi dute. Hitz-eraketako prozeduren ikerketaz arduratzen da izen hori duen batzorde zabal bat. Hitz-elkarketaz batzorde honek azken urteotan egin duen lan oparoa ezagutu nahi duenak laster izango ditu kalean bi liburu, dagoeneko argitaratua den beste batez gainera.
- EEBS siglek Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa esan nahi dute, artikulua honen izenburuak adierazi dizun bezala. Ondoko orrialdeetan proiektu honen berri ematen da hain zuzen.

EEBS proiektuaren beharra eta xedea

Aita Villasantek II. Euskal Mundu-Biltzarraren barnean egin zen Euskara Biltzarrean eman zuen hitzaldian zioenak argitzen du ederki asko proiektu honen helburua.

Orotariko Euskal Hiztegiak honako hau zioen:

"Hiztegi honen beharra agiri-agirian dago. Euskal mundua iraxoz beterik dugu. Orduan hitzen sinestamenduak emango dizkigun hiztegi zabal bat behar-beharrezkoa zaigu".

Aurreraxeago:

"Baina Hiztegi handi honekin ez dira erremediatzen euskarak alor honetan dituen eskasiak".

Eta berehala, "Hiztegi hiritartua" zer izango den esaten zigun:

"..., gaur eguneko gizartean euskarak behar dituen hitzez osatua egongo den hiztegia"

eta baita honelako hiztegi bat egiteko alde zuretik jarri beharreko oinarriak zein diren ere:

"Hiztegi hau burutzeko, ordea, beharrezkoa da *Diccionario General Vasco* delakoa eginik egotea, eta baita *azkenaldi honetan agertu diren eta hainbeste liburu eta aldizkaritan barreiatuak diren hitz berrien bilduma egitea ere*" [azpimarratua nirea].

Hiztegi hiritartu arauemailea-k behar duen bigarren oinarri hau eraikitzea da EEBE proiektuaren jomuga eta xedea.

Hiztegi-arauaren iturria

Euskara batuak behar duen hiztegi arauemailea ezin da oinarritu, ez hizkera arkaiko batean, denik ederrena dela ere, ez txoko-hizkera batean, denik jatorrena dela ere, ez hizkera oso jasoan soilik, batezbesteko erabilera literario garaikidean baizik. Baina zer da batezbesteko erabilera literarioa?, eta zer da garaikidea?

Bigarren galdera honi, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak deiturik, 1986ko urriaren 24 eta 25ean Larran-Lekunberrin Euskaltzaindiaren Hiztegi-gintza-Batzordeak, hiztegi-gintza, komunikabideetan, herri-administrazioan eta beste arlo batzuetan diharduen hainbat lagunekin batera egin zituen gogoeta-saio batzuetan bilatu zitzaion erantzuna.

Han entzun ziren eritziak entzunda, mende honen hasieratik ikerlana egiten zen unera bitarteko epealdia hartzea komeni zitzaigula erabaki zen, batez ere euskararen historia ezaguturik, kontuz ibili behar delako hizkuntzaren erabilera-modu batek tradizioa egin duela esatean. Larramendiren jarraitzaileak XX. mendera arte iritsi ziren, baina haiek erabiltzen zituzten hitz asko eta asko (*ekauta, argidotar,...*) guztiz bazterturik geratu ziren, sabindarrak indarrean ibili ziren mende honen lehen herenean eta gaur haien hiztegia ez da ezagutu ere egiten (*notin, ikurton, jaupa, ...*), beraz azken hamabost edo berrogeitamar urtetako

erreferentzia hartzea baino hobe zirudiela epealdi luzeagoa hartzea esan zen, iraun duena zer izan den ikusteko. Bestalde, jakina, azken hamarkada hauetako produkzioa eta esfortzua kontutan eduki behar zela ere nahikoa garbi ikusten zuten gehienek.

Lantaldearen bila

Euskaltzaindiak, bilketa-lan honen garrantzia azpimarratu arren, argi eta garbi azaldu zuen, 1987ko urtarrilaren 31ko bilkuran hartutako erabakian, ez zuela berak "bilketa-lan sistematiko hori, burutik burura, bere gain hartzeko asmorik" eta ez zuela berak "bilketa hori egiteko lantalde propiorik sortu eta beharrezko baliabidez hornituko" eta "lehendik lanean ari diren elkarte eta lantalde beregainen bidez" burutu beharko litzatekeela zioen (*Euskera* XXXII (2. aldia), 346 or.).

UZEIk programan parte hartzeko asmoa agertu zion Euskaltzaindiari. Bestalde, UZEI, behar ziren izapideak egin eta gero, "Hizkuntz Plangintzazko Ikerlanean diharduen Babespeko Elkarte" bilakatu zen 1987ko Irailean, EEBS proiektua aurrera eramateko hitza ematen zuelarik, Eusko Jaurlaritzarekin sinatu zuen hitzarmenean.

Lan-programa

EEBS proiektua burutzeko orain arte eman diren eta hemen-dik aurrera eman beharko diren urratsak deskribatuko dira labur-labur ondoko lerroetan:

XX. mendeko euskal produkzio idatziaren inbentarioa

XX. mendean argitaraturiko euskal idazkietan erabili den hiztegia aztertzeko, lehenengo eta behin epe horretan zer argitaratu den eta idazki-multzo horretan testu-mota desberdinek izan duten pisua zein den jakitea beharrezkoa zela erabaki zen.

Azken puntu honi garrantzi berezia aitortu zaio, testu-masa ikaragarri horren azterketa orohartzailea egitea ezinezkoa izaki, lagin adierazgarri bat arakatu beharko delako. Jakina, lagin bat aztertuz testu-multzo osoari buruzko ondorio fidagarriak atera ahal izateko, ezinbestekoa da laginaren hautespenean metodologია estatistiko zorrotza erabiltzea.

Horrela bada, XX. mendean euskaraz zer idatzi den aztertzeari ekin genion lehenbizi. Bi iturri nagusi erabili genituen asmo honekin: Jon Bilbao-ren Bibliografia eta Joan Mari Torrealdairena. Jon Bilbao-ren Bibliografian guk bilatu genituen tituluak azpimultzo bat besterik ez dute osatzen; han euskarazko nahiz beste hizkuntza batzuetan idatzitako obrak, mende honetakoak eta lehenagokoak, denetarik, daudenez. Titulu batzuk liburuari dagozkic, beste batzuk aldizkari-izenak dira eta beste asko aldizkarietako artikuluen izenburuak. Aldizkari guztiak ez dira artikuluka aurkeztuta agertzen eta honela dauden guztiak ere ez daude neurri berean xehetuta. Azkenik, esan dezagun, guk aztertu nahi dugun epealdi osoa (1900-1987) ez dutela hartzen Bibliografia honen orain arteko ondoz ondoko argitaraldiek, daturik berrienak 1981ekoak direlarik. Bestalde, hartzen duen epealdiko produkzioa ez dago oso-osorik jasota, ezinbestean.

Joan Mari Torrealdairen bibliografia 1940tik honako liburuena da. Hortaz, 1940-1981 bitarteko datuetan erredundantziari itzurtzen saiatu behar izan genuen bezala, 1981-1987 bitarteko aldizkari-artikuluen zerrendarik ez dugu aurkitzerik izan eta geuk prestatu behar izan dugu.

XX. mendeko euskal produkzio idatziaren sailkapena

Azterkizuntzat harturiko epealdiko produkzioan testu-mota desberdinek izan duten pisua jakin nahi genuenez, sailkapen bat definitu eta pisua neurtzeko parametro bat hartu behar genituen. Hiru erizpidetan oinarrituriko sailkapen-sistema bat prestatu genuen. Erizpideak *epea*, *euskalkia* eta *testu-mota* ziren:

XX. mendeko euskal testuak sailkatzeko erizpideak eta sailak

Epea		Euskakia		Testu-mota	
1	1900-1939	1	Bizkaiera	01	Egunkarietako idazkiak
2	1940-1968	2	Gipuzkera	02	Hamabostekarietako idazkiak
3	1969-1987	3	Zuberera	03	Saio-aldizkarietakoak
		4	Lapurtera/nafar.	04	Administrazio-idazkiak
		5	Euskara batua	05	Ikasiburuak
		6	Bestelakoak	06	Saiakera
		7	Nahasiak	07	Literatur prosa
				08	Poesia
				09	Antzerkia
				10	Bertsoak
				11	Ikerketa-idazkiak
				12	Haur- eta gazte-literatura
				13	Ahozkoak (transkribapenak)
				14	Liturgi idazkiak

Testuak sailkatzeko, haiek eskuratu eta gainbegiratu batez sailkapen-ezaugarriak identifikatzen eta jasotzen genituen. Lan honetan hasi bezain laster ikusi genuen liburuak eta aldizkari batzuetako artikulua sailkatzea, lan handia izanda ere, egin zitezkeen zerbait zela, baina egunkari, hamabostekari eta hainbat eta hainbat aldizkarietako testuak sailkatzea neurritz kanpoko zela. Horregatik, liburu guztiak eta Jon Bilbaoren bibliografian zehazki aipaturiko artikulua guztiak sailkatu genituen, *Orotariko Euskal Hiztegia*-n eta *Diccionario de autoridades* delakoan aipatzen diren aldizkarietako lehentasuna emanez, baina beste aldizkarietako kasuan ez genituen artikulua guztiak banan-banan sailkatu. Hori egin ordez, beste aldizkari horietako bakoitzaren testu-masaren neurketa eta masa honek denboran zehar izandako gorabeheren berri jaso genuen.

Liburuak eta aldizkariak eskuratzeko, UZEI, *Jakin*, Donostiako Udal Liburutegia, Gipuzkoako Diputazioarena (Urkixo liburutegia barne), Zabaltzen-en liburu-biltegia, Euskaltzaindia-

ren liburutegia, Lazkaoko Beneditarrena, Bilintx liburu-denda eta Donostiako Seminarioko liburutegia korritu eta zokomiatu genituen, bibliografietan agertzen ez den hainbat gauza aurkituz bidenabar. Ez nuke aukera hau alferrik galdu nahi, gainera, leku horietako arduradunek guretzat izan duten egonarri ona eta eman dizkiguten erraztasunak aipatu eta eskertu gabe.

Ondoko tauletan ikus daitezke laburbildurik sailkaturiko testuen eta sailkatugabeen multzoek dituzten tamainak, testu-hitzetan neurtuta eta epeen eta testu-moten arabera:

XX. mendean argitaraturiko euskal testuak testu-hitzetan neurtuta epeka eta testu-motaka (liburuak eta "sailkaturiko artikulua")

Testu-mota	1900-1939	1940-1967	1968-1987	Guztira
1: Egunkariak	0	0	0	0
2: Astekariak	10.500	36.000	116.000	162.500
3: Saio-aldizk.	1.566.500	3.318.500	8.044.500	12.929.500
4: Administr.	22.000	0	891.000	913.000
5: Ikaialiburuak	272.000	183.000	11.640.000	12.095.000
6: Saiakera	857.000	2.173.000	17.730.500	20.760.500
7: Literatur prosa	5.250.500	4.323.000	12.727.500	22.301.000
8: Poesia	569.800	773.000	1.147.100	2.489.900
9: Antzerkia	764.000	1.054.500	1.776.500	3.595.000
10: Bertsoak	102.600	257.400	924.600	1.284.600
11: Ikerketak	0	11.500	753.500	765.000
12: Haur-/gazte-	74.500	69.000	4.180.000	4.323.500
13: Ahozkoak	69.500	59.500	180.000	309.000
14: Liturgia	705.500	1.352.000	633.500	2.691.000
Guztira	10.264.400	13.610.400	60.744.700	84.619.500

XX. mendean argitaraturiko euskal kazetaritzako testuak ("sailkatugabeak")

	1900-1939	1940-1967	1968-1987	Guztira
Egunkariak	16.855.000	336.000	14.072.000	31.293.000
Astekariak / Hamabostekariak	14.291.775	16.776.000	46.555.000	77.622.775
Besteak	6.437.000	5.554.000	22.025.000	34.016.000
Guztira	37.583.000	22.666.000	82.656.000	142.901.000

Laginketaren diseinua

Aurreko puntuan deskribaturiko sailkapen-sistemaren bidez testuak geruzaka kokatu ziren. Aipatu ditugun sailkapen-erizpidez gain testuak bost tamainaren arabera ere sailkatu genituen.

Ezagutzen diren antzeko beste ikerketa batzuen etekina kontutan hartuta, lagin osoa 2.000.000 testu-hitzekoa izango zela erabaki zen. Gero, testu-mota bakoitzari populazio osoan duen testu-hitzen kopuruaren zati bezala definitu zen kuota bat esleitu zitzaion. Honela prosa arruntari, ikasliburuei, literatur prosari eta antzerkiari populazioko 50 testu-hitzeko bat tokatu zaio laginean, poesiari eta bertsolaritzari 200 testu-hitzeko bat eta sailkatu gabeko kazetaritza-lanei 350 testu-hitzeko bat. Geruza bakoitzari azkenean esleitu zaion lagin-zatia, neurtutako bolumenarekiko zuzenki proportzionala izan da. Testuak aukeratzeko, geruza bakoitzaren barneko fitxa bibliografikoen artean zozketa bat egin zen eta obra bakoitzaren barnean orrialdeak zozketatu ziren.

Testuen azterketa

Aurreko puntuetan deskribaturiko prozeduraz zedarritu den corpusa euskarri informatikoan jartzen ari gara 1989an zehar eta datozen bi urteetan egingo da husturiko testuen lematizazioa, testuinguru adierazgarrien hautespena, etab.

Proba pilotua

Lan guzti honen egingarritasuna frogatzeko eta bertan erabili beharreko metodologia eta erizpideak finkatzeko, proba pilotu bat egitea erabaki zen. Corpustzat mende-hasierako testu-multzo bat hautatu zen. Guztira 60.000 testu-hitzeakoa da corpus hau.

Testu hauek euskarri informatikoan jarrita, hustuta eta lematizatuta daude dagoeneko. Gero 2.000.000 testu-hitzeakoa corpusa aztertzerakoan aurkituko ditugun eragozpen eta zalantza gehienak aldeztatik ezagutzea eta konponbidean jartzea espero dugu proba honekin.

Zeharkako emaitzak

EEBS proiektu hau zeharkako beste emaitza interesgarri batzuk eskaintzen ari zaigu, hala nola mende honetako produkzio idatziaren datu-base bibliografiko informatizatu bat sortzea, lexikografi lanetarako tresneria eta programeria informatikoa prestatzea (irakurketa optikoa, hustuketa-programa, datu-basea maneiatzeko programa) eta Filologia nahiz Informatika ikasten ari diren ikasle bekadunek praktikak egiteko laborategi antzeko bat.

A. S.